

BIDASOA-TXINGUDI MUGAZ GAINDIKO PARTZUERGOA

I. ATALA – BIDASOA-TXINGUDI MUGAZ GAINDIKO PARTZUERGOAREN IZAERA JURIDIKOA

1. Artikulua – Esparru juridikoa, estatutua eta izena

Bidasoa-Txingudi mugaz gaindiko Partzuergoa Irun, Hondarribia eta Hendaiako udalek 199...ko ...aren(e)an mugaz gaindiko elkarlanari begira sinatu zuten hitzarmenaren ondorioz sortu da. Hitzarmen honek Espainiako Erreinuak eta Frantziako Errepublikak 1995eko martxoaren 10ean mugaz gaindiko elkarlanari begira Baionan sinatu zuten Trataturia du oinarri nagusi, Estatutu hauen bitartez arautzen da eta BIDASOA-TXINGUDI MUGAZ GAINDIKO PARTZUERGOA du izena.

2. Artikulua - Osaera eta nortasuna

Irun, Hondarribia eta Hendaia udalerriek era boluntarioan parte hartzen dute aipatutako Partzuergoan. Tokiko entitateen elkarte entitate bat da, eta izaera eta ahalmen juridiko erabatekoa du bere helburuak betetzeko eta Irungo Udalean adskribituta dago.

3. Artikulua – Helburuak eta xedeak

Osatzen duten udalen eskumenak kontuan harturik, honako helburu hauek ditu Partzuergoak:

Turismoaren alorrean

- * hiru udalen turismo-eskaintzaren liburu zuriaren prestaera
- * iker eta azterlanak, turismo-eskaintzaren politika amankomun bat zehazteari begira
- * turismo-produktuen promozioa: publizitatea, feriak, mintegiak, hitzaldiak, ...
- * zerbitzu berezi baten sustapena PARTZUERGOAREN barnean, Bidasoa-Txingudiko Turismo-Ekimenetarako Zentrua izenez, turismoaren aldeko ekintza bateratuak bideratzearen.
- * oinezko eta txirrindularientzako bide bat hiru udalerrien artean
- * turismo-ibilbide bat hiru udalen artean
- * turismo-bokaziorako zerbitzu amankomunaren sorrera

Kulturaren alorrean

- * hizkuntzen ikaskuntza, hobekuntza eta garapena ziurtatuko dituzten egitura pedagogikoen sorrera eta gestioa.
- * goi-mailako prestakuntzarako ikastaroak
- * hiru udalerrien historia eta kultura datuen bilketa eta haien erregistroa
- * historia, kultura eta arkeologia gune interesgarrien errolda eta haien balorazioa
- * kultura, jai eta kirol agerraldiak elkarrekin
- * kultura mailako interesa duten beste azterketa interesgarri batzuk

Gizarteren alorrean

- * bi herrialdeetako gizarte eta osasun legeriari buruzko informazioaren bilketa, profesionaleri bezala hiritarrei ere laguntzeko.
- * zailtasunak dituzten etorkinei begira harrera egiteko zerbitzu amankomun baten egokitzapena.
- * gizarte izaerako informazioa eskaintzeko bulego baten egokitzapena.

Ekonomiaren garapenaren alorrean

- * informazio, aholkularitza eta formaziorako zelula baten sorrera, hiru udalerrietako enpresei laguntza eskaintzeko eta proiektuak sustatzen dituztenei bultzada bat emateko.
Egun dauden enpresen arteko harremana sustatzea.
- * mugaz gaindiko bidaiarientzako garraio erregularren antolakuntza.
- * plataforma intermodal baten ezarpena erraztea eta haren gestioan parte hartzea.
- * Gizarte-ekonomian, kulturen eta besteetan elkarlanean jarduteko azterketak egitea ...

Hiru udalerrien arteko elkarlana antolatzeko, sare informatiko batera biltzea sustatuko du partzuergoak bere zerbitzu administratiboan eta teknikoan berri emateko.

4. Artikulua – Eskuduntzak

Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak honako eskuduntza hauek izango ditu bere helburuak eta xedeak burura eramateko:

- * Bere ondarearen administrazioa.
- * Betebeharrak edukitzea.
- * Jaraunspenak, legatuak eta dohaintzak onartzea eta edozein pertsona publiko nahiz pribaturen diru-laguntzak eta bestelako laguntzak lortzea.
- * Partzuergoaren beraren funtzionamenduaren arautegia.
- * Ondare higigarriak eta higiezinak eskuratzea, edukitzea eta alokairuan uztea, baita kauzio eta beste bermeen ezarpena, transferentzia eta hipoteka.
- * Mailegu eta jesapenen kontratazioa.
- * Obrak, zerbitzuak eta hornidurak kontratatzea
- * Partzuergoaren lurralde-esparruaren onurari begira bideratzen diren jarduera edo laguntza ekonomiko oro gestionatzea Europako Elkartearen aurrean, bi Estaturen

Gobernuaren aurrean edo partzuergoa osatzen duten udalerriei dagozkien Lurraldeetako agintarien aurrean.

5. Artikulua – Egoitza

Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak Bidasoaldea Garatzeko Agentzia (ADEBISA) delakoan izango du egoitza.

6. Artikulua – Iraupena

Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak, berau osatzeko hitzarmenaren indarraldiak irauten duen artean iraungo du, eta indarrean jarraituko du aipatutako hitzarmena berritzen baldin bada.

7. Artikulua – Aplikatu daitekeen zuzenbidea

Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa Zuzenbide Espainiarraren arabera, bereziki Toki Erregimenari begira legeria espainiarrak zehazten duenaren arabera, eta estatutu hauen arabera izango da eta, analogiaz, mankomunitateentzako aurreikusiriko erregimenak partzuergoari begira aplikatu dezakeen zuzenbidearen arabera.

8. Artikulua – Lurralde-esparrua

Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak Irungo, Hondarribiako eta Hendaiko udalerrien esparruan bideratuko ditu bere jarduerak.

II. ATALA – BIDASOA-TXINGUDI MUGAZ GAINDIKO PARTZUERGOAREN JARDUERAK

9. Artikulua – Jarduerak

Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak toki erregimenari begira espainiar legeriak aurreikusten dituen zerbitzu mota oro gestionatuta bideratu ahal izango ditu bere jarduerak.

10. Artikulua – Elkarlana beste erakundeekin

Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak bere funtzioak burura eraman ditzan beste erakunde publiko eta pribatuekin, espainiarrak nahiz frantsesak izan, jardun ahal izango du elkarlanean, beti ere dagozkion hitzarmen edo kontratuen bidez.

11. Artikulua – Identifikazio-ikurrak

Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak beharrezkoak dituen izenak, markak, logotipoak era beste identifikazio-ikurrak baliatu ahal izango ditu bere jarduera eta helburuak burura eramateko.

12. Artikulua – Hirugarrenen aurreko erantzukizuna

Indarrean dagoen legeriaren arabera hirugarrenen aurreko erantzule izango da Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa bere jardunaren garapenean, eta erantzukizun hori ez da partzuergora bildutako udalerrien ardurapean utziko.

III. ATALA – GOBERNU ETA ADMINISTRAZIO-ORGANOAK

13. Artikulua – Gobernu eta administrazio-organoak

Honako hauek dira Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren organoak:

- Partzuergoaren Kontseilu Nagusia
- Presidentea
- Lehen Presidenteordea
- Bigarren Presidenteordea
- Zuzendaria

14. Artikulua – Partzuergoaren Kontseilu Nagusia

Partzuergoaren Kontseilu Nagusiak Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren gobernu eta gestio-funtzioak bideratuko ditu, eta bederatzi ordezkari izango ditu, udalerri bakoitzeko hiru. Ordezkari horiek dagozkion Udalen Osoko Bilkurek aukeratuko dituzte, eta ordezkari horien artean nahitaez egongo dira Alkateak.

Ordezkarien agintaldia organoak berritzean amaituko da.

15. Artikulua – Presidentea eta Presidenteordeak

Hiru udalerrietako ordezkariak urte betez eta txandaka okupatuko dituzte Presidentearen eta bi Presidenteordeen karguak, eta udalerri bakoitzak hiru postu horietatik bat baino ezin izango du okupatu.

16. Artikulua – Partzuergoaren Kontseilu Nagusiaren eskuduntza

Honako eskuduntza hauek ditu Partzuergoaren Kontseilu Nagusiak:

- Presidentea, lehen Presidenteordea eta bigarren Presidenteordea aukeratzea.
- Zuzendaria izendatzea.
- Barne erregimenerako araudia onartzea.
- Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren aurrekontua eta kontuak onartzea.
- Langileak eta lanpostuak onartzea eta soldatak zehaztea.
- Ondarearen salerostea onartzea.
- Obrak, zerbitzuak eta hornidurak onartzea.
- Zuzendaritza organoen gestioa kontrolatzea.
- Zerbitzuen gestio-bideak onartzea.
- Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren erakunde berriak atxikitze proposamena.
- Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren jardura-programa, Presidenteak aurkeztua, onartzea.
- Ekintza judizialak baliatzea.
- Mailegu eta diruzaintza izaerako operazioak onartzea.

- Udal kideek jarri beharreko diru-kopuruen zehaztapena.
- Urteko jardueren txostena onartzea eta Partzuergoko kideei igortzea.
- Instrukzio eta agindu orokor egokienak zehaztea jarduerak ahalik eta modu hoberenean garatzeko.
- Lan-batzordeen eraketa, araudia eta edukia, Presidenteak aurkeztuak, onartzea.
- Europako Elkartearen programa eta laguntzen baitan proiektu eta ekintza amankomunak, elkarrekin burutu beharrekoak, onartzea.

17. Artikulua – Presidentearen betebeharrak

Honako betebeharrak hauek izango ditu Presidenteak:

- Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren ordezkaria izango da erakunde ororen aurrean.
- Kontseilu Nagusiaren batzarretarako deia egingo du, haien buru jardungo du, bertan behera utziko ditu eta batzarrei amaiera emango die. Batzarretako aztergaien zerrenda onartuko du.
- Partzuergoaren Kontseilu Nagusiak hartutako erabakiak bete daitezzen zainduko du.
- Urteko jardueren programa proposatuko dio Partzuergoaren Kontseilu Nagusiari.
- Urteko jardueren txostena egin eta aurkeztuko du.
- Lan-batzordeen osaera proposatuko dio Partzuergoaren Kontseilu Nagusiari.
- Batzordeen bileretan buru egingo du, beharrezkoa baderitzo.
- Bidezkoak irizten diren neurriak aginduko ditu Partzuergoak behar bezala funtzionatu dezan. Hortaz, instrukzio, zuzendaritza, ikuskaritza, zaintza eta behaketarako bitarteko zabalak baliatuko dira Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren zerbitzu, jardura eta instalazio orotan.
- Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren ordezkaria izango da dokumentu publiko nahiz pribatuak sinatzerakoan.
- Kobrantza eta ordainketak aginduko ditu.
- Erosketak aginduko ditu eta gastuak onartuko ditu, Aurrekontua Burura eramateko Udal Arauan zehazten den mugaraino.
- Aldez aurretik Kontseilu Nagusiaren onarpena jasota, epe labur eta luzeko mailegu eta kreditu motak oro formalizatuko ditu.
- Premiazko izaerako ekintza administratibo edo judizialak bideratuko ditu, eta horien berri emango dio Kontseilu Nagusiari.
- Espainiako, Frantziako edo atzerriko Banku, Aurrezki Kutxa edo beste mailegu-erakundeek bideratu ditzaketen jardueraz gainera, kontu korrante arruntak eta bereziak ireki, haien gaineko jarraipena egin, aldatu, luzatu eta baliogabetuko ditu.
- Ondasunak erretiratu, merkataritza-dokumentuak edo mailegu-dokumentuak eman, onartu, endosatu, erreklamatu eta berrituko ditu egokienak irizten dituen modu eta terminoetan. Halaber, erakunde publikoen laguntzak jasoko ditu.

18. Artikulua – Informazioa Partzuergoaren Kontseilu Nagusiari

Presidenteak hartzen dituen erabakien berri xehea emango da Partzuergoaren Kontseilu Nagusiaren aurrean.

19. Artikulua – Zuzendariaren betebeharrak

Presidenteak edo Partzuergoaren Kontseilu Nagusiak bereziki eskuordetutako eginkizunak izango dira Zuzendariaren betebeharrak.

20. Artikulua – 2 Presidenteordeen betebeharrak

Lehen Presidenteordeak Presidentea ordezkatzeko du bere funtzio guztietan, hura kanpoan baldin badago edo oporretan edo gaixorik baldin badago. Presidenteak eta lehen Presidenteordeak ezinezkoa baldin badute, bigarren Presidenteordeak ordezkatzeko du Presidentea bere funtzio guztietan.

21. Artikulua – Partzurgoaren Kontseilu Nagusiko Idazkaria

Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuegoko idazkariak egingo ditu Kontseiluko Idazkariarenak bere funtzio publikoen jardueretan.

IV. ATALA – GOBERNU-ORGANOEN FUNTZIONAMENDUA

22. Artikulua – Bilkurak

Partzuergoaren Kontseilu Nagusiak ohiko bilkuretan egingo du bilera, Kontseiluak berak zehazten duenetan eta urtean gutxienez bi aldiz, eta bilkura bereziak egingo ditu Presidenteak beharrezkotzat jotzen dituenean, edo gutxienez hiru Ordezkarik hala eskatzen dutenean.

23. Artikulua – Aztergaien zerrenda

Presidenteak, Idazkariaren eta Zuzendariaren laguntzaz, aztergaien zerrenda zehaztuko du kontuan izanik Kontseiluko kideek idatziz aurkezten dizkieten kontuak oro.

24. Artikulua – Deialdia

Presidenteak egingo ditu deialdiak, eta gutxienez bost lanegun lehenagotik emango zaie deialdien berri Kontseiluko kideei, deialdiak premiazko izaera izan ezean. Edozein kasutan, aztergaien zerrenda aurkeztuko da deialdiarekin batera.

25. Artikulua – Quoruma

Lehenengo deialdia baliagarri gerta dadin, Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoan partaide diren udalerrri bakoitzeko hiru ordezkarietatik gutxienez bik egon behar dute bilkuran.

Bigarren deialdiaren berri gutxienez hiru egun lehenagotik helaraziko zaie bilkura-kideei, eta bilkura aurrera eramango da udalerrri bakoitzak hautaturiko kideen artean gutxienez bat bertan baldin badago.

Bilkurak baliagarriak izan daitezen, behar-beharrezkoa da Presidentea eta Idazkaria edo beren ordezkariak bertan egotea.

26. Artikulua – Erabakiak hartzeko gehiengoa

Bilkuraraturikoen gehiengo batez hartuko dira Kontseiluaren erabakiak, eta Presidentearen kalitateko botoak erabakiko du berdinketa emanaz gero.

Edozein kasutan, Partzuergoaren Kontseilu Nagusiko udalerrri bakoitzeko hiru ordezkarietatik gutxienez biren aldeko botoa behar da eta Partzuergora bildutako udalerrri guztien aldeko botoa behar da, ondorengo arlo hauetan erabakiak hartzeko:

- Aldaketak estatutuetan.
- Epe luzeko maileguen operazioak.
- Partzuergoaren zabaltzea, desgitea, edo udalerrri batek Partzuergoko partaide izateari uko egitea.

27. Artikulua – Akta

Bilkura bakoitzaren akta jasoko du Idazkariak eta akta horretan ondo zehaztuko dira hartutako erabakiak eta botazioen emaitzak, erabakiak aho batez hartzen ez badira. Partzuergoaren Kontseilu Nagusiak onartu ondoren, akten liburura jasoko dira aktak.

28. Artikulua – Ordezko erregimena

Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren Kontseilu Nagusiaren funtzionamenduari begira aurreko artikuluetan aurreikusten ez den guztia, Toki Erregimenaren arloan Tokiko Udal Batzarren Osoko Bilkuraren funtzionamendua arautzen duen espainiar legeriaren xedapenak aplikatuko dira.

V. ATALA – BIDASOA-TXINGUDI MUGAZ GAINDIKO PARTZUERGOAREN ERREGIMEN JURIDIKOA

29. Artikulua – Nazio mailan jarduteko gaikuntza-funtzioak

Irungo Udaleko Idazkariak eta Hondarribiki Udaleko Kontuhartzaileak beteko dituzte, Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoari begira, espainiar legeriak toki erregimenaren arloan eta nazio mailan jarduteko gaitasuna duten funtzionarioei esleituriko funtzio publikoak.

30. Artikulua – Prozedura administratiboa eta jurisdikzioa

Prozedurari dagokionez, espainiar legeriak Toki Erregimenaren arloan eta prozedura administratiboaren arloan xedatutakoari jarraituko zaio Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa.

Partzuergoak ezagutu egingo du Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren organoek hartutako erabakien eta bideratutako ekintzen aurkako espainiar administrazioarekiko auzi-errekurtsoen jurisdikzioa.

31. Artikulua – Hizkuntza

Gaztelaniaz, frantsesez eta euskaraz idatziko dira Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren estatutuak, aztergai-zerrendak, bilkuretako aktak eta korrespondentzia ofiziala.

32. Artikulua – Kontratazioa

Kontratuak egiteko ahalmena izango du Partzuergoak. Kontratu publikoak zuzenbide espainiarraren arabera egin eta burutuko dira. Publizitate, kontratazio eta esleipenari buruzko prozedurei dagokienez, Toki Erregimenaren arloan eta Administrazio Publikoetako kontratuen arloan espainiar legeriak zehazten dituen betebeharrak errespetatzeko neurriak hartuko dira, eta kontuan edukiko dira kontratuaren helburua eta haren prezioa.

33. Artikulua – Langileak

Bidasoa - Txingudi Mugaz gaindiko Partzuergoaren zerbitzuan dagoen pertsonala funtzionarioa edo laborala izan ahalko da eta, era eksklusiboan, Administrazio parte-hartzaileen lanpostuen berriro esleitzearen ondorioz sartuko da. Erregimen juridikoa adskribitutako administrazio publikoarena izango da, eta dagozkion ordainsariak ezingo dira inolaz ere adskribitutako administrazioan lanpostu baliokideetarako ezartzen direnak baino handiagoak izango.

34. Artikulua – Informazioa Partzuergora bildutako erakundeei

Partzuergora bildutako udalerriek Partzuegoaren Kontseilu Nagusiko ordezkarien bidez eskuratzen duten informazioaz gainera, honako informazio eta dokumentu hauek eskainiko ditu Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak:

- Partzuegoaren Kontseilu Nagusiaren aktak.
- Urteko jardueren txostena.
- Aurrekontua eta likidazioa.

VI. ATALA – ERREGIMEN EKONOMIKOA

35. Artikulua – Finantza-gaitasuna eta diru-sarrerak

Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren Ogasuna nahikoa izango da partzuergoaren jarduerak finantzatzeko, eta honako ditu-sarrera hauek osatua egongo da:

- Bere ondaretik etorritako diru-sarrerak eta zuzenbide pribatutik etorritako beste sarrerak.
- Diru-laguntzak.
- Zerbitzuak eskaintzeagatik etorritako diru-sarrerak.
- Mailegu-operazioak ituntzetik etorritako diru-sarrerak.
- Partzuergora bilduriko erakundeek beren aurrekontuetan jasotako diru-kopuruak.
- Espainiar zuzenbidearen arabera Partzuergoari esleitu dakizkiokeen beste sarrerak oro, beti ere Baionako Tratatuaren esparrua errespetatzen baldin bada.

36. Artikulua – Udalerrien partaidetza

Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren funtzionamendu-gastuen defizita udalerrri-partaideek kitatuko dute honako kopuruaren arabera: %50 Irun, %25 Hendaia eta %25 Hondarribia.

PARTZUERGOAREN Kontseilu Nagusiko udalerrri bakoitzeko 3 ordezkarietatik gutxienez 2ren aldeko botoa eta Partzuergoan partaide diren udalerrri guztien aldeko botoa eskatzen da inbertsio izaerako operazio guztiak aurrera eramateko. Eskaera jaso duten egunetik hasita gehienez bi hilabeteko epea izango dute udalek beren diru-ekarpenak egiteko.

37. Artikulua – Urteko aurrekontua

Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak urteko Aurrekontua prestatuko du; bertan, urte naturalarekin bat egingo duen aurrekontuaren ekitaldian, gehienez onar ditzakeen betebeharren eta kitatuko dituen eskubideen kopuru bateratua eta sistematikoa azalduko du. Honako hauek jasoko dira aurrekontuaren ekitaldira:

- Aurrekontuaren indarraldian zehar kitaturiko eskubideak, edozein izanik eskubide-epen jatorriak.
- Aurrekontuaren ekitaldian zehar onartutako betebeharrak.

38. Artikulua – Aurrekontua osatzea eta onartzea

Espainiar zuzenbideak toki erakundeei begira aurreikusten duen eran egin, egituratu eta onartuko da Aurrekontua.

39. Artikulua – Urteko emaitzen balantzea eta kontua

Halaber, urteko emaitzen balantzea eta kontua egingo da.

40. Artikulua – Fiskalizazioa kontuhartzailearen betebeharra

Kontuhartzaileak fiskalizatuko ditu Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren ekintzak, hauek izaera ekonomikoko eskubideen eta betebeharren edo gastuen onarpena eta likidazioa eskatzen badute, edo haietatik eratorritako sarrerak eta ordainketak baldin badira. Gisa berean, bildutako dirua, inbertsioa eta aplikazioa eta, oro har, administratutako ondasun publikoak oro fiskalizatuko ditu kontuhartzaileak.

41. Artikulua - Kanpotiko auditoria

Nazio mailan jarduteko gaitasuna duen Kontuhartzaileak bere funtzioen baitan bideratuko dituen kontrola eta jarraipenaz gainera, kanpotiko auditoria independente batek aztertuko ditu urteko aurrekontua bezala urteko kontuak ere.

42. Artikulua – Udalen finantza-kontrola eta Kontu-Auzitegia

Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak harrera egingo die Partzuergora bildutako Udalek eta Kontu-Auzitegi eskudunek finantza izaerako kontrola egiteko aurkez ditzaketan eskaerei.

43. Artikulua – Ondarea

Partzuergoaren helburuak bete ahal izateko, bertara bildutako erakundeek partzuergoari esleitzen dizkieten ondasunek eta Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak bere fondoekin eskura ditzakeen ondasunek osatuko dute Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren ondarea.

44. Artikulua – Ondasunen esleipena

Partzuergora bilduriko erakundeek zerbitzu publikoko ondasunak eta ondare izaerako ondasunak esleitu ahal izango dizkiote Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoari, bere helburuak bete ditzan.

Esleitutako ondasunek eta eskubideek eutsi egingo diete jatorrizko kalifikazioari eta titularitateari, eta Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak ondasun eta eskubide horiek kontserbatu eta esleipenean zehaztutako helburuak betetzeko baliatu baino ez ditu egingo.

45. Artikulua – Ekonomiaren gaineko ardura

Udalak izango dira arduradunak, beti ere Hitzarmenean zehaztutako udal bakoitzaren finantza-partaidetzaren arabera.

VII. ATALA – ALDAKETA ETA DESEGITEA

46. Artikulua – Aldaketak estatutuetan

Estatutuetan aldaketak egin ahal izateko eta aldaketa horiek onartuak izateko, behar-beharrezkoa da Partzuergoaren Kontseilu Nagusia ados egotea, beti ere 26. Artikuluan zehazten den gehiengoarekin.

47. Artikulua – Partaide berrien atxikimendua

Baionako Tratatu aplikatzeko esparruan dagoen beste edozein udalerrik edo herrigunek aurkeztu ahal izango du Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergora biltzeko eskaera.

Partaide berrien atxikimendua dagokion atxikimendu-hitzarmenaren bidez formalizatuko da, eta beharreko aldaketak jasoko dira estatutuetara.

48. Artikulua – Partzuergoaren desegitea

Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa desegin ahal izango da hura osatzen duten udalerriek hala erabakitzen dutenean eta Partzuergoaren Kontseilu Nagusia alde aurretik eta 26. Artikuluan aurreikusitako eran erabaki horren alde agertzen denean. Partzuergoaren desegitea eraginkorra izan dadin, honako baldintza hauek bete behar dira: likidazio-operazioak burutuak egotea, aktiboen eta pasiboen balantzea eginda egotea, ondasunen eta eskubideen helburua zehaztua egotea eta, hala behar badu, hirugarrenen aurrean Partzuergoak bete ez dituen betebeharrak udalerrri bakoitzak bere eginda edukitzea, beti ere Partzuergora bilduriko udalerriek zehaztutako eta Partzuergoaren Kontseilu Nagusiak onartutako baldintzetan.

49. Artikulua – Partzuergoko partaideen ukoa

Partzuergoko partaide baten borondatezko ukoak ez du eraginik izango Baionako Tratatuak babesturiko mugaz gaindiko elkarlanerako erakundearen izaeran, baina nahitaezkoa izango da partzuergo horretan espainiar eta frantses estatuetako lurralde-erakundeek aurrera egitea. Indarrean dagoen aurrekontuaren ekitaldiaren itxieran baino ez da ukoa eraginkorra izango.